

ttipi-ttapa

1991eko Otsailak 21

56. zenbakia

dohain banatzen da



Datucelay

T. 58 02 25

SEAT

ELIZONDO

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

ERAKUSKETA



BEREAU ETXEA

Lesaka - Nafarroa

Tfnoa: (948) 63 72 60

SUKALDERAKO ALTZARIAK

LESAKako ZUBIAN



Zatoz ikustera!
Presupuestoak, loturarik gabe

Publizitaterik onena preziorik tikienean

...re publizitatea Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara
...ta bertze hainbertze herrietako **4.100 etxetara** zabaldu nahi baduzu, deitu 63 11 88 Telefonora

non-zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/21 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 22 ERREPORTAIA:** "Tantirumairu ikastola: Sasi guztien gainetik, aintziner"
Aitor Arozena
-
- 24 ELKARRIZKETA:** "Aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketak hasiera Elizondon eta bukaera Donezteben"
Patxi Larretxea
-
- 26 KIROLAK:**
Mattari, Baztango Pilota Eskola
-
- 28 OSASUNA:** "Alkoholari buruzko kanpaina"
-
- 29 ARO BERRIAREN ATARIAN:**
Fermin Alzuguren
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-
- 31 DENBORAPASA**
Enbido
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.100 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkarte, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe.....	450300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza.....	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun.....	587039
Gartzain.....	580451
Oronotz-Mugaire.....	592024
Ituren.....	450183
Sunbilla.....	450283
Goizueta.....	514067
Igantzi.....	637755
Arantza.....	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
ANBULATORIOAK	
Irun.....	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea.....	614444
Nafarroako ospitalea.....	102100
SSko urgenti zerbitzua.....	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia.....	262700
Gurutze Gorria.....	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz.....	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak).....	(943)464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Lesaka.....	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire.....	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra.....	630279
Baztanesa.....	580129
Leitzarar.....	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo.....	580730
Lesaka.....	637154
Bera.....	630104
ABERIAK:	
Iberduero.....	450335/450336

Deialdiak

► **Igantzin**, otsailaren 21ean, arratsaldeko 6etan Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

► **Arantzan**, otsailaren 28an, Herriko Etxean, BEMaren Batzorde Erabakikorraren bilera.

► **Lesakan**, martxoaren 1ean, arratsaldeko 5etan, Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

► **Igantzin**, martxoaren 4ean, arratsal-

deko 7etan Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

► **Lesakan**, otsailaren 23an, Herriko etxean San Fermin Jubilatuko elkartearen Asanblada Orokorra.

Botikak

• **Otsailaren 23-24ean**, Arantza, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

• **Otsailaren 2-3an**, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Zer egin behar den goargiako botikarekin kontaktatzeko?**

Nahikoa da 271020 telefonora deitzea eta bertan, 3120 abonatuarekin jartzea eskatzearekin. "Busca" zerbitzuaren bitartez, botikariari abisua emanen bait diote.

Dantzaldiak

► **Lesakan**, otsailaren 24ean, Plaza Zaharrean 7.30etatik aurrera ARKAITZ taldearekin dantzaldia.

► **Lesakan**, martxoaren 3an, dantzaldia Plaza zaharrean JOSE-LU ANAIAK taldearekin.

Bota bertsoa**Lontxo Aburuza**

Gaia: Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Doinua: Iparragirre abila dela

Berriro ere martxan jartzen da urteroko txapelketa ongi dakigu batzuentzako ez dela ez berriketa barne dena urduri ari behar kantari izanez hainbat arreta baina guztiak merezi digu euskal jolasa da eta.

Elizondotik ekiten dio jarraitzen du Ifarralden Etxarrin martxoak hamarreeta finala Donezteben kontuak izan zeren batzuk dira nabarmen kantatuz era dotoren jolas jokuak emaitza onik sortu lezake ondoren.

AGENDA

Argazkiak

► Elizondon

Jaume BUXEDAren
ARGAZKI
ERAKUSKETA

Lekua: Elizondoko
Arizkunenea Kultur
Etxean.

Noiz: Otsailaren 19tik
28ra.

Orduak: arratsaldedeko
7.30etatik 9ak artio.


Antolatzailea: Baztan-
go Kultur Zerbitzua.

Gastronomia

PIÑA FLANA

**Osagaiak 4 lagunen-
dako:** 250 gr. azukre, piña
lata haundi bat, maizena
kutzare bat, 2 kutxare ur, 6
arraultze, gatza.

4 piña xerra, lataren salda
erdia eta 200gr. azu-
kretrituratu azukrea urtu
bitarte eta ontzi batean
sutan jarri. Irakiten due-
nean gelditzen den saldan
maizena urtu eta ares-



Imanol Elizaldekin emana,
KASINO Jatetxea LESAKA.

tikoari bota. 5minutu
egosten utzi nahastenden

bitartean. 50gr. azukre eta
2 ur kutxarekin, karamelo
loa egin eta molde batean
bota. Arraultzeak batitu
gatzarekin eta utzi aparra
jeitsi arte. Kontutan hartu,
egin dugun saldatik 2 baso
behar ditugula eta arraul-
tze batitutik 1. Karamelo
hozten denean azkenik
aipatutakoa bota eta
"Baño Marian" paratu 40
minutuz. Moldetik atera eta
piña xerrekin apaindu.

Mimoak

► Lesakan

Otsailaren 22an, ortzi-
rala, "Bihotzez-bihotz"
mimo emanaldia ikastol-
an.

Martxoaren 1ean, Pe-
ter Roberts mimoak
"marratxo" izeneko
emanaldia eskeiniko du
ikastolan. Antolatzailea:
Tanturumairu ikastola.

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 ki-
lokoa): 5.800pzta. **Zerri
gizena** (95-100): 148 pzta./
kilo bizirik. **Urdamak:** 75
pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....590
1.koa.....575
2.koa.....530

Baserriko feria

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....610
1.koa.....585
2.koa.....540

Oharra: Prezio hauek 300-
340 Kg. kanalean dauzka-
ten idixko eta 200-250 Kg.
dituzten urruxentzako.

Baztango aretzea: 650
pzta/kg. Kanal.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizena:
370Pzta./Kg. Kanal. Behi

gorri ona: 420 Pzta /Kg.
Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 20.000
eta idixkoak 27.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 33.000
eta idixkoak 37.000 Pzta.
(Prezioak jeisteko arriskua)

► BILDOSKIA

• 12 kgkoak 390 pzta bizirik

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



SANTAMARIA

Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

AGENDA

Irratia

Xorroxin Irratia

Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8,00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12,05: Etxeko lanak.
- 12,15: Konkurtso kulturala.
- 12,30: Egunkariak begiratzuz.
- 12,45: Nafarroan zehar
- 13,00: Herriz herri.
- 13,25: Oharrak, etab.
- 13,30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.



AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

Zinema

► Linea Mortal

Joel Schumacher
USA 1990

Medikuntza ikasten ari diren 5 ikaslek, hil eta gero zer dagoen jakiteko esperimentu bat egitea erabakitzen dute. Esperimentu honetan, bihotza eta burmuina geldiarazten dute, bizi zeinuak agertzen duten monitoretan lerro bat agertu arte (hortik dator pelikularen izenburua). Taldeko partaideak txan-



dakatuko dira froga honetan, gero eta denbora gehiago pasatuz heriotza eta bizia banatzen dituen tunel misterioitsu horretan.

Pelikulak, azken finean, heriotzarekin kontuz ibiltzeko eta nolakoa den jakiteko hil arte itxoin beharko dugula erraten digu.

Pelikulari komertzialtasun pisko bat emateko abizen haundiko protagonista gazteak ditugu, eta hauen artean "Pretty Woman" filmean agertzen den Julia Roberts.

Beraz, erdi beldurrezko eta erdi zientifikoa den pelikula, ikusgai.

Musika

► Anje Duhalde Xabier Amurizaren kantari

Euskadi (IZ) - 1990

Euskalerrian normala izaten da bertsoak erabiltzea kanten letrak osatzeko. Aurretik horretan ibili izan dira Xabier Lete eta Antton Valverde Txirritaren bertsoekin, Oskorri, Amuriza beraren eta Gabriel Arestiren bertsoekin eta gaur egungo hainbat rock talde ere.



Anje Duhaldek gauza beretsua egin du Xabier Amurizaren bertsoekin: letra onak eskuratu eta doinu ahalik eta ederrena jartzzen saiatu. Oraingoan ongi

asmatu du eta letraren aldetik ona bada disko hau, doinu aldetik ere maila ona lortzen du, bai Anje Duhalderen ahotsarengatik eta bai Mixel Ducau eta Joxan Goikoetxeak egindako lanarengatik. Dударik gabe, letrak dira diskaren euskarria, zaila bait da gaur egun hainbertze hitz dituen diska bat aurkitzea baina musika ere laguntzaile ona bihurtzen da lan honetan.

ETXEGARAI

BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

HERRIKO OSTATUA

Tfnoa.: 45 03 25

ITUREN

*ttipi-ttapa*rendako diru-laguntza eskatzeko

Bortzirietako Udal-ordezkariek Malerreka, Baztan, Leitza, Goizueta eta Urdazubi-Zugarramurdikoekin bildu dira

Eskuartearen duzun al-dizkaria orain berriki arte Bortzirietan banatzen baldin bazen printzipalki, gaur egun ordea, Malerreka, Leitza-Goizueta, Baztan eta Zugarramurdi-Urdazubi herrietan, osotara Bortzirietan baino dexente ale gehiago banatzera ailegatua da. Baina ez da

ordea gauza bera gertatzen, diru-laguntzen aferaz hitzegiterakoan. Joan den urtean, errate baterako, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 1.700.000 Pzta. jaso zen bitartean, bertze udal guzien artean 70.000 Pzta. jaso ziren. Egoera honen aintzinean eta aldizkaria

behar bezala aintzinerat eramateko, honako kezka agertu die Bortzirietako Euskara Mankomunitateak goian aipatutako Udal guzietan; *Udal guzien diru-laguntza beharrezkoa dela, alegia*. Bide hori jorratzeko, Arantzako alkatea, Berako alkatea eta bi kontzejal, Igantziko alka-

tea eta kontzejal bat, Etxalarko alkatea eta kontzejal bat eta Lesakako bertze kontzejal bat, herriz-herriz ibili dira, batetik aldizkariaren proiektua eta helburuak azalduz eta bertetik, aldizkariarendako diru-laguntza eskatuz. Orain, ikusi behar esfortzu estimagarri honen emaitzak.



Saran, Elinzanburu urtea. Otsailaren 17an, igandea, ospatu ziren zenbait ekitaldi karia horretarat. Goizez Meza nagusia eta omenaldia; eguerditan mintzaldia eta erakusketa eta arratsaldean, kantuak eta bertsuak.



Euskal Etxe modura egokituko. Argazkian ageri den etxea, Lesakako Matxinbeltzenea etxea, barnetegi, euskaltegi eta euskal-txoko bezala egokituko du IKAK.



**ATERPE
jatetxea**

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

**TXOKO
ERRETEGIA**

**Bazkari, afari
eta gosariak**

ITUREN
Tfnoa.: 45 04 91

NAFARROAKO EUSKARA TEKNIKARIEN SAREAK ALDERDI POLITIKOEI

Jaun agurgarria:

Nafarroako Gobernua, Hizkuntz Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez ematen duen diru-laguntza, Udala Euskara Zerbitzuak sortu dira hainbat Udaletan.

Zerbitzu hauek "Euskara teknikariok", hilean behin biltzen gara, sare bat osatuz. Bertan gure lanaren nondik-norakoa eztabaidatu eta Nafarroako eskualde ezberdinen euskararen egoera konkre-

tua gertuagotik eza-gutzen saiatzen gara.

Oraingohonetan, heldu diren hauteskundeetan parte hartuko duten Alderdi guztietara jo nahi dugu, Euskararen Normalkuntzarako prozesuan ezinbertzeko pausua den konpromezua hartzeko proposamena luzatuz.

Hauxe da beraz, Alderdi guztiei eskatzen diegun konpromezua:

1.- Eskualde euskalduneko Udaletara aurkezten diren hautagai guztiak euskaldunak izatea. Zerrendaburua eta taldearen bozemailea izanen da, euskaldun alfabetatuak izatea.

2.- Eskualde misto eta ez euskalduneko zerrendaburuak eta bozemaileak euskaldunak izatea (alfabetatuak ahal izanez gero).

3.- Nafarroako Legebiltzarreko zerrendan, ahal den euskaldun kopururik haundiena egotea; eta bertzerik ezean zerrendaburua (Nafarroako Gobernuko Lehendakariagaia) eta taldearen bozemaile lana beteko duena euskaldun alfabetatuak (euskaldun osoak) izatea.

4.- Euskararen normalkuntzarako, datozen lau urte hauetan, alderdiak

duen programa kale-ratzea.

Euskararen legeak agintzen duen eran, administrazioa euskaldundu nahi badugu, ezinbertzeko ikusten dugu politikoen euskalduntzea, beraiek sortzen bait dute administrazioan egiten den lan guztia, eredu imitagarria izateaz gain.

Gutxieneko hauek ez badira betetzen, Udala eta administrazioetako langileen euskalduntze prozesuan egiten ari diren ahaleginak, alferrikako lanak ikusten ditugu.



Ion Gorrotxategi
15.986.187

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, Agerra Industrialdean

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - **BERA**

J. M. ANDUEZA

Elektrizitate instalazioak

Bidasoa 77, Tfnoa: 63 08 54

BERA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

SAROB okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**



EUSKALDUNA JATETXEA


Tfnoa.: 63 03 92

BERA

Hamabi kilometroko baserri bide moldatzeari ekin dio iaz Udalak



Lazanbordara eramaten duen bidean adibidez, ormigoia eman da



Saihesbidearen ikuspegia harrobi aldean

ROMAN HARRIBILAGA

1990ean Udalak egin-dakoaren balantzean ezaguterazi dituenen artean, baserri bide hobekuntzari dagokiona aurkitzen da, besteak beste. Era honetan, baserri edo landalara zeramaten 12 km. bide izan dira hobetuak guztira, iaz Beran. Bideak zelaian doazen tartekak asfaltatu egin dira eta maldak, ormigoiez hartu. Aurrekontua, berriz, Udalak, Iruñeko eta Estatuko Gobernuak ordaindu dute 74 milioien % 33a emanez bakoitzak.

Afera agertutakoan, baserriar guztiak onartu zuten Udalaren planteamendua. Honen arabera, bide batzuren moldatze lanak auzolanean gauza-

tuak izan dira: hiru Zalain auzoan, Eztenekoborda, Malaustekoborda, Lazanborda; Latzanbordako bi bideskak, Martinekoborda, Maletenea, Ameltziaga, Miranda, Ezpondakoborda eta Idiarnekoborda baserrietara eramaten duten bideak, zazpi Km. osatuz guztira, 37 milioiko aurrekontuarekin, berez 50 milioi balioko lukeenatik 13 milioi aurreztuta.

Kontratataren bitartez, "Chantre, S.A" kasu honetan 5 kmko. bidea moldatua izan da: Illekue-ta auzotik Idoia alderdiraino daraman tartea, Mitxinborda eta Garmendikoborda lotzen dituena eta Mendiondo eta Morkotzenborda artean kokaturik aurkitzen dena.

Telefonoak inguruko etxeetan

Udalerriko ingurumenean kokatutako 17 etxebizitzetan paratua izan da telefonoa azken hilabeteetan. Izan ere, Udalak epe bat zabaldu zuen bigarren etxebizitza eta merkataritzaarako erabiltzen ez den ingurumeneko etxebizitzetan telefonoa paratzean 125.000 pzt. baino gehiagoko aurrekontuak ordaintzen laguntzeko.

Dirutza 1.500.000 pztatkoa izan da, 15.000 eta 200.000 artekoa izanez Udalak emandako laguntzak, urruntasunaren arabera. Telefono hauekin herri-gunetik kanpoko ia etxebizitza guztietan badago telefonoz solasteko aukera.

Saihesbidea akatsekin

Zenbait akats ageri ditulanak gauzatu ondoren zabaltear dagoen Berako saihesbidea. Udalak bere aldetik hori egin baino lehen akatsak zuzen ditzan eskatu dio Iruñeko Herri-lan Sailari bilera batetan "zirkulazio arriskutsua sorterezikobaitluke". Egin dituen eskaerak 3 dira funtsean: "ikuspenik ez dagoela eta Arkaitza harrobiaren ondoko Beratik Iruñeranzko sestra al-daketa (cambio de rasante) ezabatzea", baita "horma bihur daitekeen hezedurak" ere tuneleko itaizurei dagokienez gehien bat, "Verkol, S.A. ren lantegi ondoko irteeran ematen den ikuspen eza" z gain.

Herriko ikasleen gurasoak Beran institutua ezartzearen alde agertu dira


AITOR AROZENA

Otsailaren 8an, Bortziritan batxilergo berriak ezartzeari buruz hitzegiteko, herriko bi ikastetxeetako guraso talde bat bildu zen Herriko etxean eta bertan, "administrazioari Beran batxilergo berriak ezartzea exigitzea eta Felones Jaunari erabaki hau jakinaraztea" erabaki zuten bildutakoek.

Gurasoen ustez, Lekarotzeraino joateak "jator dualdaketak, familiarekiko elkarbizitza ordutegiaren aldaketak, nekamena, tentsioa, errendimendu gutxitzea eta denbora galtzea" suposatzen du Bortziritako ikasleentzat, kontutan hartuz gaur egun goizeko 7,30etan ateratzen direla, arratsaldeko 4etan itzuliz.

Bidaia ere errepide txarrean egiten dute, ikasleentzat arriskua suposatuz eta etxe koentzat ikaragarriko gastua.

Lesakako gurasoen ustez, Lekarotzen batxilergo guztiak bilduko balira,



Karroza ederrak aurtengo Iñauterietan

irakaskuntzaren kalitatean nabaritutako litzateke, "gelen masifikazioa, inguru sozio-kulturalarekin sustrai gabetasuna eta eskola kanpoko ekintzak, kirol ekintzak, etabar egiteko zailtasunak" ekarriko bait luke.

Gertatzen ahal da ere gazte batzuk hurbilago dagoen bertze Komunitate Autonomora joatea ikasketak jarraitzera

Kontuan izanik Bortziritako ikasleekin nahikoa izanen litzatekela Berak eskatutako bi batxilergoak ezartzeko, "Felones jau-

nari Berako institutorekin duen konpromezua errespetatu eta betetzea" eskatzen diote gurasoek.

Giro ederreko Iñauteriak

Aurtengoan ere giro ezin hobearrekin igaro dira Iñauteriak, nahiz eta euria eta eguraldi hotza nagusi izan. Larunbatetik hasita astearteraino ikusi izan genituen mozarroak, mai-ruak, zaku-zarrak, etabar luze bat... Honetaz gain musika eta besta giroa izan genuen, larunbatean rocka, igande eta astelehenean plazako dantzaldia eta

Iñauterietan zehar, Fraindarrak eta Goitarrak karririkaz karrika.

Astelehenean karroza pila bat ateri ziren: bonberoen parkea, ijitoen familia bere karroarekin, fragata, Estatu Batuetako dantzari "lirain" talde bat, Coca-Cola errepresentanteak eta Asterix eta Obelixen herri osoa ikusteko aukera izan genuen, bertze karroza, mozarro eta jantzi ugarien artean.

W ttipi-flash

San Fermin Jubilatuta Elkarteak, bere urteroko Asanblada Orokorra izanen du larunbat honetan, otsailak 23, Herriko Etxean.

Rafa Maritxalar lasterkari lesakarra bigarren gelditu zen junior mailan Gipuzkoako Kross txapelketan. Michelin taldeko Kamel Ziani-rengandik segundu batetara.

Autobiaren aldeko jarrera hartu zuen Udalak azken plenoan, EA eta PNV alderdien aldeko botoekin eta HBren aurkakoarekin.

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bitiria, Tfnoa: 63 75 42
LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127 LESAKA

Buxungo errekaen desbideraketa luzerako

PELLO APEZETXEA

Ttikia izanik ere, tarteka arriskutsu bihurtzen da kiena da, euriketa haundiren ondorioz plaza eta plaza inguruko etxeetan uholdeak sortuz. Lurpean preso doalako da hori, noski. Saneamendu sarea berrituzerakoan, zenbaiteko desbideraketa projektua burutu bazuten ere, oztopoak izan ziren burutzeko eta lehengoan gelditu zen. Geroztikako projektu egoikiagoa badago egina, Goikolanda barrena Tximista ibaira zuzenduko lukeena, bidenabar karrika berritako markatuta dagoen lekutik. Hor ere, ordea, badira zailtasunak, honen edo haren lurra ukitzen duela-ta. Bertzalde, Nafa-



Ortzegeun gizen egunean

roako Gobernuari zera eskatu zaio, beronek obra bere gain har dezan, baina erantzuna ezezkoa izan da. Dirulaguntza oraindik ere mantentzen du.

Dirulaguntzak

Azkenaldian herriak hartutako dirulaguntzak, hauek dira: 1.982.057 pe-

zeta Nafarroako Gobernuagandik, Landagain eskolaren kirol pista eta itxiturarako. Larraburun burututako obrarako, jubilatuen egonlekua, gehi teilatu eta fatxada barne direla eta 12 milioitara ailegatu dena, Nafarroako Gobernuak 6.349.000 pzta eman

ditu. Estatuak, berriz, Inverso bidez, 250.000 peze-ta luzatu ditu, Larraburu etxeko sarrera koska eta maila gabeko izan dadin. Inverso beraren bidez bertze bi milioi peze-ta eta gehiago, zaharren bizilekuan zenbait tresna berezi paratze-ko, aisago eta segurua-go ibil daitezten.

1990. urteko Biztanlegoaren gorabeherak

1990. urtean 5 haur jaio ziren. Hildakoak 6, berauen adina hau zelarrik: 49, 59, 64, 87, 87, eta 91 urte. Ezkonduak, 4 herrira ezkondu ziren, kanpoko 2 bizilagun berri ekarriz. Ezkondu eta kanpora joanak bertze hiru izan genituen.

Biltoki Elkartearen batzarreko erabakiak

OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 9an Biltokin izandako batzarrean hauexek izan ziren informazio gaietaz aparte hartu ziren erabakirik garrantzitsuenak:

• Eskolako komedorea

Eskolako komedorea,

momentuz, eta bertze biderik ikusten ez den bitartean, orain arte dagoen bezalaxe segi dezan onartzea.

• Junta berritzea

Juntaren berritzea ere egin zen eta hauexek dira juntako partaide berriak:

Lehendakari - ordea:

Luis Mari Zelaieta.

Idazkaria: Beatriz Migelena.

Bokalak: Lander Sein eta Lourdes Etxeberria.

Gainontzeko gaiak informatiboak izan ziren.

Idazkari berria izanen dugu lau hilabetez

Pilar Txueka, Arantza

eta Igantziko idazkari titularra dena, Iruñeara joan da euskara ikasketak burutu nahirik, hurrengo lau hilabete hauetan.



(bertze aldean segitzen du)

Ikasketa hauek, Bortzi-rietako Euskara Mankomunitateak, gure eskualdeko Udaletako langilegoa euskalduntzeko duen programaren barruan sartuta daude.

Igantzi eta Arantzako Udalek bitartean, lau hilabete hauek betetzeko ber-tze idazkari bat kontratatu dute.

Beharrezko azterketa egin ondoren, Mari Jose Larraiotz Urrotarrak at-
era zuen lau hilabete haue-

tarako lanpostua.

Argentinarren eskerrak

Duela hilabete batzuk Arkupeak elkartearen es-
kutik etorritako argentin-
arren notiziak baditugu.
Herriko Etxera eta fami-
likoei bidalitako eskutitz
edo kartetan eskerrak
ematen dituzte hemen
izandako harrerarengatik.

Hiru izan ziren Igan-
tzin sortu eta harat joan on-
dotik bisita egitera etorri



zitzeizkigunak. Beraienzat
esperientzia ahaztuezina

izan omen da hemen pasa-
tutako denboralditxo.

ARANTZA

Herriko zaharrek urteroko besta ospatu zuten umore ederrean

JON LARRETxea

Azken urteotan ohi du-
ten bezala besta bat antola-
tu zuen "Arkupeak" elkar-
teak zaharraren eguna ospa-
tzeko. Ehunen bat lagun
bildu ziren besta honetara;
eguerdiko hamabietan
meza izan zuten eta gero
anaiarteko bazkaria Pablo
Enea jatetxean, bertsolari
eta soinulariekin alaiturik.

Laister, berriro ere bil-
tzeakoak dira, izan ere, da-
goenekoz ia ia bukatu-
rik bait dago zaharren egoitza
eta izanen dute aukerarik
hori ospatzeko

Ikasketak Lekarotzen egin behar eta haserrea

Aranaztarrei urruti joan
beharra tokatzen zaigu



ikasketak segitu nahi iza-
nez gero, Lekarotzeraino
alajaina! BUP eta COU
ikasketak egiteko.

Hala ere, bazegoen
itxaropenik aurrerantzean
hurbilago, Bortziritan be-
hinipein, izanen zela auke-
rarik. Bainan badirudi Na-
farroako Gobernuan as-

moak hagitz bertzelakoak
direla.

Hau dela eta firma bil-
keta bati ekin diote esko-
lako gurasoek, institutua
Bortziritan izan dadila
exijituz.

Iñauteriak

Aspalditxo bukatu ba-

ziren ere, idatzitxo hau bi-
dali zigun Javier M^a - k eta
bere hortan botatzen dugu:

*Aurtengo Iñauteriak ere
pasatu dira, lasaitasun eta
giro ederrean. Dena den,
aipagarria da "mozorro
gaztetxoek" izan duten ja-
rrera estimagarria. Mozor-
ro helduen baimen
osoarekin ibili dira herriko
ohitura zaharrari jarrai-
tuz, "puxka - puxka" ibil-
aldietan, alegia. Gainera,
larunbata arratsaldez
haurren joko bikainak an-
tolatu zituzten.*

*Beraz, eskertzekoa da
mozorrotxo horien lana eta
horrela segi dezatela urte
aunitz.*

Mozorroak.

Euskal dantza ikastaroari ekin zaio

TXEMA ALDABE

Aspalditik Donezteben dantzari talde baten beharra zegoen baina orain arte gauza gutti egin da arlo honetan. Egia da, orain dela 10-15 urte Marisol Telletxea, Marisol Iturria eta Maite Ibarroliak ilusioz ekin ziotela dantzak irakasteari. Horrela herriko bestetan bederen nabari zen dantzarien presentzia.

Gaur egun berpiztera doaie dantzen ilusioa eta orain dela gutti eta asteazken arratsaldero 60 gaztek ekin diote dantzak ikasteari. Bi taldetan banaturik, 30 haur 4-9 urtekoak eta bertze 30 10-14 urtekoak ari dira gogoz Josune sunbildarra irakasle dutelarik. Haur bakoitzak 500 pzt. hilero ordaintzen du eta Guraso Elkarteak 250



pztako laguntza ematen du haur bakoitzeko.

Poliki-poliki hasi dira, Luzaideko dantza, Ituren eta Zubietako zortziko eta Jorrai dantzarekin.

Erresidentzia ez da Donezteben eginen

Honetaz solastu ziren Udalekoek Urtarrilaren 31an izandako bileran. Baztan-Malerreka-Bortzi-

rietan 100 goatzeko erresidentziaren beharra zegoela eta, Malerrekako Udalek eta Arkupeak elkarteko ordezkariekin batera, Ongitasun sailakoekin izandako bileran etxe hau Beran egitearen alde agertu omen ziren. Dena den, azken batean, etxearen kokapena bertako entitate eta Arkupeak elkartearen artean erabaki behar omen da.

Hori dela eta, Doneztebe-ko Udalak, Donezteben egin zedin, behar ziren lur-rrak Ongitasun Sailari eskeintzea erabaki zuen.

Kamioiendako aparkalekua

Bilera horretan ere Doneztebe-ko karriketan aparkatutako kamioiek asteburuetan, batez ere, eragiten zituzten trafikoa arazoz hitzegin zen. Aterabide bat eman nahian, herri sarrean, Aparan lantegi ondoan, leku bat aparkalekurako egokitzea erabaki zen, horretarako lur jabeekin negoziatuz.

Ingurua zaintzeko Dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak 1.753.000 pztatoko dirulaguntza eman dio Udalari ingurua zaintzeko.

Gaztelu eta Donamariako Iñauteriak

SARA eta NATALIA

Otsailaren 2an eta 3an Gaztelun Inauteriak ospatu ziren (Onofre eta Asuntziónek diotenez) eta Donamarian berriz, 8, 9 eta 10ean. Herri txikia izateaz gain, nahiko disfraz miresgarriak izan ziren ikusgai; pailazoak, haur mukizu batzuk, zulu errazako bi

atso, etab.

Igandean arpana apostua izan zen eta nahiko jende elkartu zen plazan. Animatzaile bezala, talde zoragarri eta miresgarri bat egon zen: "Los incansables de la acordeón".

Ez zuten hagitz ongi jotzen, baina zarata bederen ateratzen zuten.



ZUBIETA

JUAINAS

Iñotik pasatuta holako hutsune bat gelditzen da, gero... zertaz hitzegin? Berri laburrak paratu beharko ditugu, pertsonalarekin sartu eta ixilik ez gelditu. Serioekin hasiko gara.

Ostatuan bi


Bata, lanaren jarraipena litzateke, zalantzas beterik egon bait da afera. Prezioen igoera zela, bilerrak, eztabaidak, eta joanetorri ugariren ondotik aurrera doala dirudi. Hemenetik jartzen dena handik kendu beharko.

Bigarrena ikastaroarena dugu. Kartelak hortxe dira, han hemenka. Deial-

dia garbia dute. Ostatuaren gestioari begiraturik, bertakoek ia animatzen diren esperantzarekin, preskakuntzarako, hitz gutxitan, antolatu da, zein harrera izanen duen esaterikez dugula oraindik. Dena den, esperientzia arituz lortzen omen da. Animo!

Biajero exotikoak, lirateke bestea, Joxemi Iñotik Brasilen ospatzen ari den bezala, gaur, Ines Antesko Bordakoa, Ekuadorrera doa. Iloba baten esperoan daude, Mitxel eta Marisaren bigarrena.

Euskara eta ogia, hirugarrenentzat hartuko dugu. Udan euskera ikastera datozenak. Neguan



euskal lerroko irakasleak direla! Elo, Maittane, Iñaki eta Juainas; euskara zerbitzuaren teknikaria den Ines; Pilartxo euskal sukaldaria Doneztebeko euskaltegian; gehi orain

berriro, maestraren etxeko Elitxu eta Arantxa panderrujolea euskaltegi berdinetan ari dira, irakasten, erroztzaiak ikasten dutelarik... euskeraren mobida ikertu beharko genuen!

ITUREN

Iturengo AEK k korrikan parte hartzera deitu

IBAN ISASI

Aurten ere, eta zazpigarren urtez hain xuxen Korrika ospatuko da.

Aurtengo edizioan burutuko den ibilbidea Donostia-Baiona izanen da eta bertan parte hartzera deitzen dizue Iturengo AEK-k. Talde politiko, kultur erakunde, enpresa, eta gizabanako guztiei, Korrikaren aurtengo edizioan parte hartzera dei egiten zaie hau antolatzen eta bertan laister eginez.

Eskualde edo zonalde bakoitzean "Korrika

taldea" k sortuko dira, hauek sortzeko hainbat bilerak eginen direlarik.

Beraz, antolaketan parte hartu nahi izanez gero horietara joatea besterik ez duzu.

Bertzalde Kilometro saltzea ere eginen da, hauek edozeinek eros ditzakeelarik eta kilometro horretan erosleak jarritako korrikalariak eginen du laster eta berak eroslearen izena eraman dezake.

Gure zonaldeko herrietako eskoletan, Korrika ttikiak ere antolatuko dira.

Erran behar, bukatzeko



TTIPI - TTAPA hau zuen eskuetara heltzerako gure eskualean Korrika taldeen bilerak eginak izanen direla Malerrekakoa, Iturenen

ospatua izanen baita Otsailaren 19an.

(bertze aldean segitzen du)

Udal batzarra
Otsailaren leaeginiko al-batzar ez-ohizkoan

bertzeak bertze hurrengo puntuak aprobatu ziren: herrian egiten ari diren au-

zolanetarako seguru poliza bat kontratatzea, HBren gerrari buruzko mozioa eta

gosetearen aurkako kanpainarena.

SUNBILLA

Udalaren erabakiak

TXI PETRIRENA

Otsailaren lean, ber-
eak bertze honako eraba-
hauek hartu zituen
dalak:

Earen mozioa autobiaz

EA taldeak aurkeztu-
ko autobiaaren aldeko
ozioa onartu zen HBren
ontrako botoarekin,
bertze arrazoien artean
idasoa aldeko karreteren
obekuntza baxtertzen de-
ko Nafarroako Gober-
naren presupuesto eta
k".

EHNE-ren mozioa

Euskal Herriko Neka-
zarien Elkartek
(E.H.N.E.) aurkeztutako
mozioa onartu zen aho ba-
tez. Laburturik, honela dio:

*"Nafarroan nekazari-
tzak duen garrantzia kon-
tutan hartuz, alderdi eko-
nomikoan eta soziokultu-
ralean, gaitzetsi egiten
dugu Gobernuak egin nahi
duen birmoldaketa eta gure
agintarien hitzak, 10 urte-
ren bururako nekazarien
erdiak bakarrik gelditu be-
har dutela erraten dute-*



Sunbillako Herriko Etxea

nean. Lanpostuak galtzea
eta zenbait zona jendez
hustutzea ebitatuko duen
planifikazioa, zerbitzu eta
infrastruktura aldetik

gainerakoen mailara igot-
zea eta hauteskunde sin-
dikalak egitea eskatzen
dugu, nekazariak beren
ordezkariak aukeratzeko".

URROTZ

Herria lohiez estalita

OXEMARI URROTZ

Norbait azken egun
auetan Urrotzen egon
ada mendiko pista batean
ebilela pentsatuko zuen.

Baina ez, frontoi berria
raikitzearen lanak eta eu-
ak eragindako lohi puska
der bat bertzerik ez da.
onek etxe barruraino
karri ditu ondorioak,
xekeoandreak haserrera-
z.

Planta landaketa

Garaia denez urrozta-
rrek planta landaketari ekin
diote, batez ere haritzak:
mendien itxura manten-
tetzeko eta ondasunak
hartu ahal izateko.

Xorroxin

Xorroxin irratiak Malerre-
ka eta Bortzirietako berriak
zabaldutako ahal izateko herri
bakoitzean berriemaile bat
eskatu du eta Urrotzen
Maixus arituko da.



BAZTAN

Hotza eta euria egin bazuen ere, inauterietan ez zen animaziorik faltatu

MAÑONE eta JOSEBA I.

Aspaldiko partez aurtengoan negua berri. Elurra eta hotza ez bait genuen azkeneko urteotan hain lagun. Euliak, kukuxuak, eta bertze pizti batzuk hiltzeko egokia izanen da.

Orakunde eta Inauteriak pasa dira

Eta nola gainera, sekulako jendetza. Orakundeari buruz eta aspaldiko partez Elizondoko kontzentrazioak eta ikastolak elkarrekin ospatu zutela erraiten ahal dugu.

Halere, hotzak eta eguraldi txarrak ez zuen gibelera bota jendearen dibertitzeko gogoia. Akats batzuk aipatzekotan, izandako auto istripuak. Erratzun bi izan ziren, gazte bat zauri larriekin suertatu zelarik. Eta nola ez, Oronotzko istilua Guardia zibilarekin, hauek, gazte batzuk besta egiten zeudenean atxilotu eta mehatxatu bait zituzten

Ehiztariak kexo!?

Orain dela 15 egun elkartu ziren Nafarroako erdialdetik goitiko ehizta-



Inauteriak Elizondon

rien elkartetako zuzendariak eta beharrezkotzat ikusi zuten neurri batzuk hartzea Gobernuak jarritako debekuen aurrean.

Baztanek 1.067 ehiztari ditu eta datorren igandean bilera dute ehizaren etorkizunerako hartu beharreko neurriez aritzeko.

Udaletik dator notizia...

•Elizondoko kanposantuaren permuta.

Onartua izan da HBren proposamena Union Baztanaren aldeko botoarekin eta EAren aurkakoarekin. Kanposantua zabaldu eta parking bat

eraikitzea zioen proposamenak, interes soziala ikusirik eta defendatuz permuta expropiazioaren aurrean, historikoki Baztanen beti horrela egin direlako aldaketak. Baldintza hauek onartu dira:

- Nafarroako Gobernuak, balorazio teknikoa egin behar du lehenbaitlehen.

- Udalak kanposantuar lur komunal gehiago zeditzea.

EA aurka zegoen Junta Generalak hartu behar duelako erabaki hau eta ez Udalak.

• Maixu eta medikuek Herriaren etxeetan bizi-

tzeko eskubidea galdu.

Hiru medikuek etxeak jarraitzea baina errenta berrordainduz eta Herriko Etxean bertan bizi zuten kontserjea Herriko Etxearen karguegitea erabaki d

Maixuek berriz, 5 hilabetetako epea dute beren eskubidea galdu dutela jabetzeko eta etxebizitzan hauek bizitza soziala egi,go dira.

Hauetara, asistenta sozialaren arabera, etxeak beharrezkoa dutenak joango dira.

•EHNEk aurkeztutako mozioak agertzen zituen zortzi puntuak onartuak izan dira azken bilan ahobatez.

• Baztango saneamenduak oraindik itxar beharko du, ez baita onartua izan NILSA-k bidalitako estudio teknikoa planoak aldatu behar direlako. Ikusirik presupuestoa 1.200tik 2.000 milioiara doaiela, Nafarroako Gobernuari informazioa hatzagoa eskatzea erabaki da.

MERKEALDITAN GAUDE
UDABERRIKO TELETAN ESKEINTZA UGARIA
EKARRI BERRI-BERRIAK
IPINGI GAZTE TXARTELA
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

Otsailaren seia, egun berezia izan zen

MARGARI eta KORO

Otsailaren 6a, guretzat berezia izan zen gertatu ziren bi gertakizunengatik. Baina, erraiten den bezala, bi alde izan zituen, diruak bezala (cara y cruz).

Lehendabizikoa eta pozgarriena gure lagun maitea (eta zuzenki nere lagun berriemailea), Korok, ekarri zuen mundurat bere alaba, Maialen deituko dena.

Hemendik, Zugarramurdiko gazteok zorionik beroenak bidali nahi dizkiogu Koro eta Bixentarentzat, eta milaka musu Maialen-entzat.

Baina bertze aldetik, egun trixtea ere izan zen, herriko gizonik zaharrena



Zugarramurdiko "sorgiñak"

zen Norberto Arburua (94 urtetakoa) hil zelakoz. Jakintsua eta denetaz maitatua zen gizon hau galdu dugu.

Ihauteriak

Urtero bezala ospatu

ziren Ihauteriak, hilaren 10, 11 eta 12an. Igande arratsaldean hogeitaz gazte joan ziren bentetarat eskean ibiltzerat, handik itzulita Herriko etxean afaldu zuten eta ondoren, dantzaldia.

Astelehenean, (men-

diko eguna) baserriz berriribili ziren, beti bezala bazkaria eskeinia izan. Kaminoko Bordan berborondate onarekin, itzean herrira jautsi eta lazioan afaldu zuten, eguna ongi bukatzeko, urriz denak dantzatzera.

Asteartean, berriz, zean Madariako auzotzulia egin zuten eta tzatenea jatetxean bazaldu. Honen ondoren, etxe ibili ziren herriar bukatzeko afaldu zupalazioan eta azker dantzaldia.

Erran behar da ere, eguztiak pasatu zirela ure ederrean eta Arbor Kriztian izan zela g akordeolari partikular


OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO



«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

Eskein
jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 5800
ELIZONDO



FOTO ZALDUBIA

Argazkiak, Bideoa, Marka
ELIZONDO TF: 58 04 9
DONEZTEBE TF: 4503 6

Aurtengo Ihauteriak joan dira

ELKARTEN ELKARTEA

Ihauteriak, asteburu antan ospatzen ziren. Aro arrak trabaturik ez dira formalki iragaiten ahalan. Hala ere gazteek be- n xedea doi bat bete dute nahiz eguraldia azka- go agertu, gazte hauen erezimendua nahi ge- kegoraipatu. Alabainan, hen aldikotz eta aspal- ko partez, Ihauteriak, bertako ohidura zaharraren abera iragan dira. Zazpi ldun eta ondotik neska - util andana bat euskal ntzietan zen aurtan es- eini daukuten opari ede- n, eta Saratar askoren a- ginetan gainera. Agian, arrenge Ihauteriek aur-

tengoak bezenbateko aipa- mena merexituko dute. Igandean Saratar andana bat agertu zen 1960. urteko rock giroaren inguruan mozarroturik. Hor aurki- tzen zirela bai Claude François eta bere dantzari famatuak "Clodettes", Mikel Jackson, etabar...

Ageria

Korrika 7, pasatuko da heldu den Martxoaren 17an, igandez. Zurezko le- kukoa Lizuniaga errekan hartu eta San Inazioko le- poraino eramanez dugu, Lehen aldia da hemen gairi pasatzen dela. Gure hizkuntzaren aldeko atxi- kimendua erakusteko pa- rada ezin hobea dugu. Sa-



Ihauterietan, Zazpiak Bat elkarteko haurrak dantzan plazan

rako elkarte eta saratar guziak gomitatzen ditugu ekitaldi horretan parte hartzera.

Sarako itzulia

Ekainaren 16an parte

hartu ahalko duzue "Sarako itzulia" hortan, hirugarren aldikotz. Mendizale guziek atxik egun hori zuen gogoetan. Geroago ere, he- men atxemanen dituzue xehetasun gehiago.

AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak



Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948)
45 04 00
DONEZTEBE

Vegasa[®]

Eguraldi txarra baina giro ona aurtengo Iñauterietan

Asteleheneko "mozorroek" eta astearteko zagi dantza aipagarri

ESTEBAN AROZENA

Iñauterietako giroa berotzeko eguraldiak laguntza gehiegirik ez badu eskeini ere, Goizuetarren festazaletasunak errez gainditu ditu elurrak eta euriak jarritako oztopoak, eta hiru egunean zehar alaitasuna eta festa nagusitu dira gure herrian, inoiz galdu ez diren, eta urtetik urtera hobetzen doazen tradizio zaharrei gogor utsiz.

Aurten ere zuzen bete da ohiturak agintzen duena, eta astelehen goizean bi taldetan banaturik baserrietako eskeari ekin zioten berrogei "mozorroek", goitik beheraino loituak eta baserri guztiak bisitatu-takoan ilunabarreko zazpiretan herriratu zirelarik. Asteartean zagi dantzaren inguruan bildu zen jendetzarik haundiena, Goizue-



Goizuetako zagi - dantza

tako Iñauterietan pertsonai mitiko honek duen protagonismoa garbi adieraziz.

Herri programa

Udal hauteskundeak laister burutuko direnez, Goizuetako Herri Batasunak herritarren eritzia jasotzeko asmoa du, nolabaiteko inkesta bat egingo duelarik hortarako. Etxee-

tan eta herriko elkarte eta erakundetan banatuko diren paper batzuen bidez eta beste gaien artean, azken lau urte hauetako Udalaren gestioaz herritarrek duten iritzia eskatzen du Herri Batasunak, datorren lejislaturarako jendearen uste-tan egin behar premiazkoenak zein diren galde-

tzeaz gain.

Udala intsumisioaren alde agertu da

Udalak egin zuen azkeneko osoko bilkuran, ahobatez onartu zuten bildutako zinegotzi guzietan HB - k aurkeztutako mozioa. Bertan goizuetarrei euren burua intsumisio bezala izendatzerata ejerzito espainolean sartzeari uko egitera animatzen zen eta horretarako, interesatuak leudeken guztiak beharrezko luketen informazio osoa Udaletxeko egoitzetan izango dute beren esku.

Honekin batera, bete beharreko inpresio, paper edo dokumentu guztiak betetzeko beharko luketen laguntza guztia emateko prest agertu da Udala, ahobatez hartutako erabaki honen arabera.

ITXASO JATETXEA

MENUA ETA KARTA

Ibardingo Gaina - BERA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI

**OYARZABAL
EXKABAZIOAK**

Zimentazioak,
bideak moldatu
eta bertze
edozein lan

Tfnoa: 45 07 55
DONEZTEBE



EZKONTZAK

Jose Urrutia Sarratea eta M^a Teresa Mitxelena Iparrea, Zigorakoa eta Iruritakoa, Urtarrilaren 12an.

JAIOTZAK

Mickaël Mitxelena Saran, Otsailaren 1ean.

Jon Pedro Quintano Fernandez, Elizondon, Urtarrilaren 14ean.

Jose Ignacio Iribarren Goikoetxea, Iruritan, Urtarrilaren 20an.

Leticia Jorajuria Iribarren, Arraiotzen, Urtarrilaren 24ean.

Xabier Irigoien Urdanbide, Erratzun, Urtarrilaren 25an.

Naiara Lazkano Bikondoa, Elizondon, Urtarrilaren 26an.

Izaskun Arozena Arburua, Urrotzen, Otsailaren 1ean.

Xumar Bakero Olaizola, Goizuetan, Urtarrilaren 31an.

HERIOTZAK

Norberto Arburua, Zugarramurdi, Otsailaren 6an, 94 urte.

M^a Carmen Berrio Garcia, Leitzan, Otsailaren 2an, 45 urte.

Encarnacion Sein Lekuona, Lesakan, Otsailaren 7an, 75 urte.

Jose Antonio Larralde Bereau, Lesakan, Otsailaren 8an, 55 urte.

Elena Azarola Etxeberria, Urtarrilaren 17an, Elizondon, 82 urte.

Mikaela Fagoaga Ariztia, Urtarrilaren 27an, Elizondon, 87 urte.

Josefa Ayastui Zugasti, Urtarrilaren 31an, Elizondon, 91 urte.

Dolores Molina Abad, Otsailaren 3an, Elizondon, 4 hilabete.

Miguel Fco. Latasa Agesta, Otsailaren 5an, Oitzen, 81 urte.

Antonio Etxeberria Telletxea, Otsailaren 9an, Beintza - Labaienen, 89 urte.

Estefania Legazkue Zabaleta, Otsailaren 2an, Narbarten, 84 urte.

Fco. Arregi Telletxea, Oieregin, Urtarrilaren 31an, 64 urte.

Jose Santesteban Gorroztarazu, Zubietan, Otsailaren 7an, 59 urte.

J.Juan Lujanbio, Goizuetan, Otsailaren 13an, 80 urte.

B RADIO
BIDASOA

TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK

expert



SUKALDE ALTZARIAK

Legia, 42 Tfnoa: 63 03 77 BERA

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * T.B., Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Hezkuntz Erreforma HSOAL (LOGSE)

Joan den Irailean Madrilgo Diputatu Kongresuan Hezkuntz Erreformatarako Lege berria onartua izan zen (H.S.O.A.L. - LOGSE). Aspaldidanik eskatzen zen legea, azkenean iritsi da. Parlamentuko alderdi guztiak baiezko botoa eman zioten P.P. -koek ezik.

Garbi dago orain arte hezkuntzari buruz geneukan eskema (OHO, BBB, Lh, UBI) aldatu beharko dugula. Eta erran beharrik ez, hori onerako izango dela.

Beraz ailegatu zai-
gun aldaketa nondik
nora dihoan pixka bat
argiago ikus dezazun
zera proposatzen di-
zugu: Alde batetik,
hementxe daukazu
hezkuntz sistema be-
rriaren eskema eta
bestetik, datozen ale-
tan Eusko Jaurlaritzak
eginiko atal bakoitze-
ko informazio berezia
(ezaugarri orokorrak;
helburuak, ebaluape-
na, ikasketen jarraipe-
na eta atal bakoitzari
buruzko zenbait gal-
dera) ekarriko dizugu.

LAMIA TALDEA



Lamia

**MUSIKA DENDA
ZERBITZU
BERRIAK**

- ✓ Ekipoen alokairua
- ✓ Disko-bar, diskoteka, e.a. ekipoak
- ✓ Soinu ekipo guztiak orokorrean

San Esteban 37 - Tfnoa: 63 10 59 - BERA



Fco. Martin Aiestaran
BURDIN-LAN ARTISTIKOA
450235 - ELGORRIAGA



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESACA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Zure iragarkiak
inguru honetako
4.100 etxetara
zabaldu nahi
badituzu, deitu
631188 telefonora

Tantirumairu ikastola: Sasi guztien gainera, aintzinerak

Otsailaren 17an ospatu zen Lesakako ikastolaren egoitza berriaren inaugurazio ofiziala



Urtebeteko tartea dute ikastolaren bi argazki hauek: aldaketa ederra izan du Otxogorrieneak

Gaur egun hainbat ikastola itxi edota eskola “nationalekin” fusionatu diren honetan, berri pozgarria izaten da ikastola baten inaugurazioa, batez ere aintzinetik hamazazpi urtetako lana dagoenean. Ikastola honen sorrera, 1974ean, ezin daiteke berezi Euskalerrriak bizi zuen frankismoaren azken urteetako inguru politiko-kulturaletik. Bolada hortan euskal konzientziaren berreskurapena, kultura eta hizkuntzaren inguruan murgiltzen zen. Hala bada, ikastolak sortu eta suspertzen hasi ziren, gau-eskolak, kultur asteak, euskal historia ikastaldiak, kantaldiak... Euskalerrriko zoko guztietan zehar eratzen hasi ziren.

Testu inguru honetan, 1973ko udazkenean Lesakan ospatu zen 1.º Euskal Jaikintza astea. Honen arrakasta ikusirik, ikastola baten beharra sumatu zen eta lan horri ekin zioten Berakoekin batera.

Handik hilabete batzutarra bi herrietako ikastolak sortu ziren. 1974. urtean, Gobernuaren eta herriaren betiko sektoreen gainera, Tantirumairu ikastola, 7 haurrekin bidea urratzen hasi zen. Jasotako zen dirulaguntza apurra Príncipe de Viana-ren eskutik zetorren.

Pixkanaka, ikastolak sendotasuna lortuz zoaien, eta 1978. urtean herriko haurren %50a bertan matriculatu zen. Halere, arazoak segitu zuten: Tantirumairuk ikastetxe bezala ez zuen legalizaziorik lortzerik, ikastolaren aldeko eta aurkakoen arteko borroka gogortu egin zen eta jaiotzen kopuruak beherakada nabarmen bat jasan zuen.

Zailtasunez beteriko garaia hasi zen eta 1986ko apirilean Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako MEC delegazioak ikastola eta Irain ikastetxe publikoaren arteko fusio proposamena aurkeztu zuten, baina ikastolak eska-



Lehen ikasturteko haurrak: Txalagarria izan zen neska-mutiko hauen gurasoen erabaki zintzoa

tutako baldintza batzuk ez zituen onartu MEC delakoaren herrialde ordezkariak eta elkarrizketak apurtu ziren.

Nafarroa Oinez - 88

Herri osoa mobilizatu zuen ekitaldia izan zen 1988. urteko Nafarroa Oinez-aren antolaketa lana.

Beraz, gure ustez, aintzinera segitzeko egoera onean gaude, beti ere gurasoak ikastolan haurrak matrikulatzen segituz gero.

Orain arte, hain kondizio txarretan egonik Otxogorriena etxea, herriko haurren %40a ikastolan matrikulatuta bage-nuen, orain egoitza berri-tuak duen mailarekin eta dauzkan instalazioak kontutan hartuz, badakite zer egin gurasoek euskarazko irakaskuntza eta euskara beraren etorkizuna egitan ziurtatu nahi baldin badute.



**Kontxita Erro, Tanti-
mairu ikastolaren irakas-
lea 13 urtez.**

Etorkizuna baikorta-sunez ikusi behar dugu, izan ere etxe berrituare-kin batera eta orain, eska-tutako baldintzak betetzen dituelako aurrelegaliza-zioa eman bait digu Nafa-rroako Gobernuak.

Bi helburu nagusi izan zi-tuen ekintza honek: alde batetik, ikastolaren legali-zazioa lortzeko diru iturria eta giza-laguntza izatea eta bertetik jendearentzat elkarlaguntza eta topagu-nea izatea.

"Euskarari eutsi, euskaraz hezi" lemapean egindako deialdiari 50.000 euskalzaiek eman zioten erantzuna, prestatu zen zirkuito ederra eta Lesakako karriak jendez be-teaz Urriaren 9ko egun arrakastatsu hartan.

Aintzinetik, egun be-rean, eta gibeletik egindako lanak eta ekitaldi honetan paratu ziren ilusioak uzta ederra jaso zuten; diru al-detik 28 milioi pasatxo, ikastolaren etorkizuna ziurtatzeko balioko dute-nak, gehien bat Otxogo-riena berritzeko erabili



Nafarroa Oinez-en anagrama

bait dira.

Gaur egungo egoera eta egoitza berria

Aurtengo ikasturtean 116 neska-mutiko daude matrikulatuak Tanti-mairu ikastolan eta Gabone-tako oporrez geroztik ari dira etxe berrian ikasten.

Egoitza berri honek hiru solairu ditu, bertan daude-larik 9 gela (8 klaseak emateko eta bertzea labo-ratorio bezala), gimnasioa, sukaldea, bulegoa eta jan-gela.

Igandean izan genuen inaugurazioaren ekintza ofiziala, ikastola berria nolakoa izanen den jende guztiari erakusteko eta etorkizunerako dagoen itxaropena azaltzeko. Bai-na ofizialtasunaz gain bes-ta giroa antzeman zitekeen ospakizunera hurbildu zi-renen artean. Goizean mu-sika eta dantza izan geni-tuen, eguerdian inaugura-zioaren ekitaldia, Lakun-tzako eta Tanti-mairu tal-deen dantza saioa eta azkenik bazkari ederra frontoian. Gero gero-koak.

AITOR AROZENA

Aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketak hasiera Elizondon eta bukaera Donezteben

XX. edizio honetan 22 bertsolarik hartuko dute parte



Eugenio Arraiza eta Lontxo Aburuza aurtengo Txapelketaren aurkezpenean

Nafarroako XX. Bertsolari Txapelketaren aurkezpena egina da iada prentsurrean, bere xehetasun eta ñabardura guzietan. Guk prentsurre horretara agertzerik izan ez genuenez, azken urteotan txapelketaren antolakuntza eta koordinazio lanetan aritu den eta aurtengo ere horretan ibiliko den Lontxo Aburuzarengana jo dugu, guzi honen berri zuzenean izateko. Lehen begiradan aurtengo ediziotik gauza bat aipatzekotan, berriro ere banakako modalitatez itzuliko dela azpimarratu beharko genuke –iaz launakako taldeetan aritu baitziren– eta partaidetza aldetik aurtengo urriagoa izateaz gainera, izen berri bat plazaratzen dela: Urko Atxutegi, hamabortz urteko gaztea hain zuzen ere.

Baina kontuak utzita, goazen Lontxorekin solas egitera guzi honen berri zuzena izateko.

Zein da, Lontxo, berriro txapelketaren lehengo erara itzultzeko arrazoia?

Erran beharra dago iazko edizioa taldeekin zela Euskal Herriko Txapelketa pasa berria zelako eta entzulegoari zerbait desberdina eskeini nahi geniolako. Egoera berezia bezala hartu behar da eta eskeini zuen emaitza aztertzerakoan, guztiz positiboa izan zela erran behar da, udazken aldera egingo dako batzarrean bertsolariak elkar ezagutzeko balio izan zuen, txapelketa aintzinatik taldeak bizpahiru aldiz edo prestatzera bildu behar izan zutelako, eta bertetik, bertze herrialdeetako bertsolariei zer pentsatua eman zion modalitate honek. Aurtengo edizioari begira, berriro bakarka egitea erabaki da, bertsolariak eurek ere nahiago dutelako, batez ere mailarik apalenean ibiltzen direnak, hauentzako zama astuna gertatzen baita agian beuren erruz egin duela taldeak behera pantsatzeak.

Azal itzazu llabur-llabur txapelketaren xehetasunak.

Hiru kanporaketa eta

finala izanen ditu. Denetara 22 bertsolarik parte hartuko dute. Lehen kanporaketa Elizondon izanen da otsailaren 24ean arratsaldeko 5etan eta J. F. Argiñarena, Arozena, Mendi-buru, Alkat, J.M. Fagoaga, B. Madariaga, Laka eta Jaso ariko dira. Bigarren kanporaketa martxoaren 3an Iparraldeko Izuran burutuko da, arratsaldeko 4etan eta honakook ariko dira: M. Xalbador, Arro-sagarai, Arzallus, Atxute-gi, Amorena eta Miura. Hirugarren kanporaketa, berriz, martxoaren 10ean, arratsaldeko 5etan eta J.M. Argiñarena, Elizagoien, X. Madariaga, Ezponda, Perurena, Martikorena, E. Fagoaga eta Olanoren partaidetzarekin. Doneztebe-ko Bordatxon izanen da finala Martxoaren 17an, zortzi bertsolariarekin.

Zein da bertsolariak burutu beharreko lana eta epaimahaiaren osaketa?

Bertsolari bakoitzak 12 bertso egin beharko ditu agurrak kontutan izan gabe. Ofizioka sei bertso, lehen puntua emanda bertso bat, lau oinak emanda bertze bat eta kartzelako lanean lau bertso; hiru neurri librean gai bati buruz eta bertso bat bukaerako puntua emanda. Epaimahaia berriz, azken lau urtetakoa: Larre, Etxegoin eta Itzaina Iparraldetik eta Bujanda, Urroz eta Epaltza hegoalde-tik.



1987ko txapelketa, Beran ospatutako finala

GOIKO



Alkat, 87ko txapelduna eta Joxe Urroz

GOIKO

Aurrekontua finantziatzeari dagokionez, nola burutzea espero da?

Txapelketa hau, Nafarroako bertsolari elkarteak antolatzen du Principe de

Viana-ren laguntzarekin. Aurrekontua 1.735.000 pztatakoa da eta zulo hau berdintzeko, sarreretak gain, Principe de Vianak, ekitaldiak ospatzen diren

herriak eta zenbait aurrezki kutxen laguntzarekin kontatzen da. Dena den, guzi honen berri zehatza txapelketa ondoren ematen da

Partaidetzari dagokionez bigauza ageri dira nabarmen. Alde batetik urriagoa dela eta bertzetik izen berri bat plaza-ratzen dela...

Bai, aurreko urtetan Iruñaldean ikasten ari diren zenbait gipuzkoar parte hartu izan dute, baina aurten ez dira animatu. Urko Atxutegiri dagokionez, 15 urte dauzka eta, beraz, arrunt gaztea da oraindik. Bertze herrialde-tan adin horretan eskolar-teko txapelketan parte hartzen dute baina hemen ez da horrelakorik gertatzen eta aukera hori eskeini nahi izan zaio. Beraz, ez da komenigarria ardua gehiegi-rik bere bizkarreratzea.

Zuk ez duzu txapelketan parterik hartzen. Zein da honen arrazoia?

Lanpeturik nabil irakaskuntzan eta txapelketa-ren antolakuntzan eta nahiago izan dut ez parterik hartzea. Plazara irtenez gero, paper txukuna burutzea gustatzen zaigu eta horretarako aurretik pres-tatu behar duzu. Denborarik gabe, nekez ordea.

Horrela bada, bertsozale zaretenguztiok, heldu den lau igandetean, badakizue non duzuen zita. On dagizuela!

PATXI LARRETXEA

Baztango Pilota Eskola, euskal kirola berreskuratzen

Juanjo Atxa pilotazalea ari da 70 gaztetxorekin lanean

Baztanen bertze leku aunitan bezala aspaldiko kirola dugu pilota. Juanjo Atxak gogoratzen du noia gaztetan Inter pueblos txapelketan aritzen zen eta Baztanen bortz zazpi herrik ateratzen zuten taldea txapelketa hau jokatzeko.



Baina kirol honen inguruan gazteekin pixko bat mugitzen, Joxe Urrozek eman zituen lehen pausuak, 1975. urtean, Lanbide Eskolan hasi zenean, Interpueblos eta escolar txapelketetan parte hartzen zutelarik. Aldi berean, Fermin Fernandez "Pirrin" "herramienta" munduan sartu zen, 5 urtez paleta txapelketak eta partiduak bestetan antolatuz, aurretik Burgete eta Lazarok egindako lanari segituz. Garai hortan pilotari ederrak sortu ziren eskola honen inguruan: Elbeteko "Cho-

clero" Baionan eta Mexikon ospatutako Munduko Txapelketetan parte hartu zuen; Urdazubiko Agerre Gasteizko Munduko Txapelketan aritutakoa; Luzaidekoa, baina hemeneskolan egondakoa, profesionala den Arretxe; kasu berean aipa genezake munduko txapelketan izana eta gaur egun profesionala den Eugiko Iribarren.

1978. urtean, Joxe Urrozek J. Atxaren eskutan utzi zuen esku pilota, bera laxoa munduan murgildu zelarik. Urte horretan bertan, C. D. BAZTAN-en

sartu ziren pilota adarra sortuz. Hemen lau urte inguru egon ondoren beraien kabuz segitu duten, .

Bakarkako lana

Gaur egun, 70 mutiko eta gazte daude guti gora behera Baztango Pilota Eskolan, hauetatik 25-30 Nafarroan antolatzen diren txapelketetan aritzen direlarik emaitza onak lortuz. Hauetaz gain, denak parte hartzen dute Baztango Pilota Txapelketan.

Juanjo Atxak ez daki zeintzuk izan ziren hasi zirenen asmoak, baina berari dagokionez, "aunitz gus-

tatzen zait esku pilota eta horrekin segitu dut, batez ere, Kirol hau Baztanen desagertzen ari zelako. Jendea pilota partiduak ikustera eramatea lortu ez badut ere, lehen baino gutiago joaten bait dira, mutiko koxkorretan zale-tasuna sartzea bai. Gero haunditzen direnean gehienak utziko dute baina hori bertze arazoa da".

Antolatzaileen aldetik, hasieran hobekiago zauden, lehendabiziko txapelketetan 5-6 lagun biltzen bait ziren astero: "Txurbo", "Txiki", Astiz, Mitxeo,



Urrutia, Angel Arrikaberri zena eta Juanjo Atxa bera. Baina gaur, erran daiteke Juanjok daramala Pilota Eskolaren pisurik haundiena, beti ere guraso batzuren eta, Baztango txapelketan, pilotari helduen laguntza eskergarriarekin.

Urtean zehar hainbat txapelketetan parte hartzeaz gain, herrietako bes-tetan ere aritzen dira. Aurtengoan 21 herritakotan, Baztango 6 herritan eta gainontzekoak, Baztandik kanpo.

Etorkizuna

J. Atxak dioenez,

“oraindik behintzat segituko dut lan honetan. Noiz arte? ez dakit, uzteko gogoak eduki ditut arazo batzu direla medio, baina uzten badut, hainbertze urtetako lana pikutara joanen dela ikustean, ez bait dut segitzeko asmorik duen inor ikusten, pasatutako une txarrak baztertuz eta onak, hagitz onak gogoratuz, aurrera segitzen dut. Gero, nirekin ibiltzen diren haur horietatik bakarrenbat edo berteze goi mailara iristen bada hobe, nere lana alferrik ez dela izan erran nahiko luke”.

Baztan-Bidasoako sokatira taldeek Mikel Ibarrolarekiko elkartasuna agertu nahi

Baita Nafarroako Herri Kirol Federazioak

Amaiur, Sunbilla, Arizkun, Basaburua eta Nartarteko Sokatira taldeek eta Nafarroako Herri Kirol Federazioaren ageri batean irakur daitezenez, Udalek agertu duten jarrera eta berriki arte Malerrekako Koordinatzailea izan denarekiko elkartasuna agertu dute.

“Badakigu Herri Kirola oraindik minoritarioa dela, baina azken urte honetan hartu duen indarra izugarria izan da. Txapelketak, exhibizioak, jende gazte eta ez hain gaztea kirol mota hau praktikatzen hasi da lehen aldiz, plazak beteta, kirolari askok elkar ezagutu dugu baita harremanak estutu

ere, Herri Kirola gehiago bultzatzeko indarra sortuz. Baina gauzak ez dira usteketan sortzen, lan aunitz egin behar izan da gauden lekura iristeko. Horregatik, elkartasun osoa agertzen diogu Ibarrolari, bera izan baita lehenbizitik ixileko lan gogor horretan aritu denetako bat, bere ahalegin eta dedikazio osoak eman ditu fruituak, baina Udalek nonbait, ez dute oraindik ikusten. Espero dugu oraindik ez dela berandu izanen inguruko Udalek kirol arloari dagokion postura birplanteatzeko eta Mikel berriro elkarlanean gurekin egoteko.”

Hamabostaldiko jokaldiak

Jokaldirik hobereana

Gure Txokoa Herri Kirol Taldea.

Oraintxe sortu eta gogor ari dira entrenamendutan Nafarroako Herri kirol Txapelketan parte hartzeko. Ea Bortziritako berteze herriak ere animatzen diren.

Jokaldirik txarrena

Maidar Martinez, Bortziriak Taldeko eskubaloi jokalaria.

Ez da eskatzen Ben Johnson hainako sprina izatea baina ezta ere dordoken bezalakoa. Entrenatzaileari kasu pixka bat gehiago egitea ez da txarra.

Alkoholari buruzko kanpaina

NAFARROAKO Osasun Mentaleko Taldeak alkoholari buruzko informazio kanpaina bat burutzen ari da Baztan-Bidasoako eskolatan.

Kanpaina, lau urtetan zehar garatuko da eta zenbait arrazoiengatik ematen litzateke. Hauen artean, gazteen artean izaten diren mozkorraldi ugariak, asteburuetako istripu kopurua alkoholarengatik edota intoxicazioa taldean ematen denean (gaupasa), eskoletako bestak eta Lesakako musika bezalako giza mugimenduak.

Osasun Mentaleko Taldeak dioenez, kanpaina eskualdeko 10 eta 18 urte arteko 3.200 neska-mutilei zuzenduta dago eta ez da alkoholaren aurkako edo ez edatera zuzendutako kanpaina, "haur eta gazteei, heldua izaten eta erantzukizunez edaten

erakustera, ez edatera edo kontrolarekin edatera" baizik.

Eskoletako kanpaina

OHoko ikasleentzat zuzendutako kanpaina, Lesaka, Bera, Doneztebe eta Elizondoko ikasleekin ihardunen dute, eskualdean dauden BBB, UBI eta LH institutuen ikasleekin batera.

OHoko kanpaina bi zatitan banatuko da, bat 5. eta 6. mailako ikasleentzat eta bestea 7. eta 8. mailakoentzat. Biak ere, lau sesioetan garatuko dira, kanpaina honetarako egindako folleto eta bideoak ikusiz edo kartelak eta pegatinak ikusiz, eskola lan bat egiteaz gain, alkoholari buruzko marrazki edo erredakzio bat egitea lehenengoan kasuan eta gai berari buruzko bideo bat egitea bigarrenengoan.

Ikasketa ertainetan egiten den kanpaina ere bi



Kanpainaren irudietariko bat

zatitan banatuko da, bata BBB eta LHko bi lehen mailetara zuzendua eta bertzea BBBko 3. eta UBI eta LHko 3. eta 4. mailetara zuzendua.

Hemen, hasierako in-

kesta bat, bideo eta materiale idatziaren ikustea, alkoholari buruzko galderak eta eritziak, eta kanpainaren bukaeran honen azterketa eta azken inkesta eginen lirateke.

Joseba Koldobika Sainz de Garay

Kiromasajista Fisioterapeuta

Masaja terapeutikoa eta prebentiboa, berrindartzea, depresioak, nekeak, stressa, lepa-hezurra, erreuma, ziatika, emakume-gaixotasunak, etabar...

KONTSULTARAKO, ESKATU ORDUA Tfnoa: 45 22 67 - ELIZONDO



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

GAI A

OSASUN-DENDA
BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK

Bittiria 6, Tfnoa: 637410 - **LESAKA**

LUR APAL

MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 **LESAKA**

Astrologia


Piscis, ... "arrainak"

Tifon erraldoiak maitale bikote bati erlazioa aurrera eramatea galerazi zion. Kondairaren jatorrizko lekuaren arabera bikote honen partaideak izen ezberdinak dituzte: Venus-Cupido, Eros-Psique.... bainan beti oinarrizko gizon-emakume arketipoei erreferentzia eginez.

Zeus indartsuak ezin zuen deus egin, destinu fatalarengatik indarririk gabe gelditu bait zen. Maitaleek, Tifonengandik ihesika eta eskapo-biderik gabe, Eufrates ibaira bota zuten euren burua. Ito eta arrain bihurtu ziren. Minerva Jainkosak zeru sapaian jarri zuen arrain pare hau eta geroztik, hor dago Piscis konstelazioa.

Piscis arketipoa

Piscistarrek indeziso, sentibera eta eraginbera fama dute, ez sobera jaiok gauza praktikotan. Urrikalmendua da daukaten birtuterik haundiena,



ederki ulertzen dute bertzen sufrimendua.

Piscis, urzeinua dugu, mutablea. Urzeinua denez, sentimenduen munduan murgilduta dago; eta mutablea denez, gehienetan norabide zehatz bat gabe, itsasoko uretan bezala.

Bere bizian sentimentuak aski garrantzitsuak dira, bertzen sufrimendutaz gupitu egiten da eta idealista samarra ere badenez, lazetasunak konpontzera saiatzen da. Bere atsegintasun eta "suabetasunarengatik" lagun aunitz erakartzen

ditu. Hauek ez dira errax ohartuko zer den piscitarra bultzatzen duenaz, nolako "mobida" daukan barrenean. Bertze jende praktiko eta errealistagoek ez dute ulertzen honelako jokamodu idealista, altruista, iheslari eta errealtateari oldartzen ez dena.. Hauxe da Piscis-ek eskeintzen digun ikasgaia: ez dugula sobera materialistak izan behar eta gure bizian sentimendu eta idealek daukaten garrantzia aitortzea.

Udaberriaren zai

Neguko estutasunak ia amaitzear daude. Lurrak oraindik azalean bizi guti agertzen badu ere, zenbait arbola loratu eta amuak indartzen hasiak dira.

Piscis, kristautasunaren zeinua

Astrologikoki frogatu denez, Kristo Piscis omen zen, eta ondorioz, kristautasunak ere badu holakorik.

FERMIN ALTZUGUREN

FOTO GOIKO

Altzate 36, Tfnoa: 63 05 15 - BERA



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9
DONEZTEBE



MERKEALDIAK

San Migel auzoa 27,
450883 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

PLATER KONBINATUAK

Amezti 3, Tfnoa: 45 03 06 - DONEZTEBE

MERKATU TTIKIA

▼ Etxebizitzak

• **Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637410

• **Doneztebe** inguruan, 3.200m² duen borda bat salgai. 1.200.000. Tfnoa: 450054.

▼ Lana

• **Astean zehar** Bera, Lesaka edo Irunen lan eginen nuke; bai haurrekin, etxeko lanetan, ostatu batean edota komertzio batean. Dei 630789 tfnora.

• **Administrari bat lan** egiteko prest; 7 urte terdiko bulego-esperientzia. Tfnoa.: 943-51 38 95

• **Astean zehar** Beran, Lesakan, Igantzin edo Etxalarren edozein lan eginen nuke. Esperientzia haurrekin eta dendetan. Tfnoa: 45 05 28

▼ Salerosketak

• **DOLMAR 122 S** motozerra salgai. Tfnoa: (943)

490619

• **“Desbrozadora” bat** salgai dago Arizkunen. Berri-berria, batere ibiltzekoa. Deitu 453037ra 3etatik aitzinera.

• **ALPINA PROF 41** motozerra salgai. Tfnoa (943)490619.

• **Akordeoi bat salgai** Estrella markakoa. Gorri kolorekoa, tekladuna eta 96 baju dituena. 450499 tfnoa.

• **Bazka egosteko pazina** erosiko nuke. Tfnoa. 592043.

• **Esne tanke bat**, Japy markakoa 150 litrokoa salgai. Tfnoa. 450465. Begoña - Donamaria.

• **Logela bat** salgai dago. Erabili gabekoa. Goatzea 1,35 mkoa., armairua bost atekoa, bi mesilla eta tokadorea. Haritz egurrez egindakoa. Tfnoa.: 637879

• **AH - Goldoni** traktorkarroa salgai. Tfnoa: (943) 490619. Oiartzun.

• **Asto bat** salgai daukat. Lanean hezia eta emea. Tfnoa: 61 50 16. Saldias.

• **Montesa “Cota 309”**

motorra salgai daukat. Gutxi erabilia. 330.000 pza. Deitu larunbata goizetan 630412 Tfnoa. Mikel.

▼ Denetarik

• **Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarentzat, elkartentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

• **Beran, negutegiak** jartzeko terrena behar dut. Metroko 700 pza. artio ordainduko nuke. Tfnoa: 450054.

▼ Harremanak

• **Izaskun Etxeberria** ren partez Iruritako mutiko bati, beretaz maitemindu naiz.

• **Leitzako** Galingo (Culolindo) eta pirulo (bellarizulo)-ri goraintziak. Baina nahiago dugu gure ipurdi haundietako musuak Santi eta Mutuk ematea.

• **Mugaireko** Izaskun G. -entzat M.I. ren partetik muxu haundi bat hik nahi

dun tokian. M. E.

• **Irungo** txirrindularirik onenari: zu zara eta izanen zara beti, nere bihotzeko txirrindularia. Zure “po-txola”.

• **Etxalarko** Zialdo-kakoei: Aurtengo Iñauterriak zialdoka pasatuko dituzue, txurrimuski karabana prestatuta daukat zuen bizitzak animatzeko, nahi al duzue?

• **Lesakako** Palirentzat: Jakin ezazu gogoratzen zaitugula. Ez zaitugu, zuku ezagutzen gaituzun bezala ezagutzen, dirudienez. Ia noiz ikusten garen Lesakan. Bi muxu. B. eta J. (Zubieta).

• **Gazteluko** Meltxorreri: Ikusi zintudan egunetik gaur gauerarte maite izan zaitut. Musu haundi bat. Arantzako neska bat.

• **Amalia Gonzalezentzat**: BUP-eko lehenengo mailako neska politenari, musu haundi bat eta nire agurrik beroenak. Maite zaitut!. Fernando.

• **Lesakako Txanpi** eta **Urrotzko Txanpinonari**, zorionak xixen partez.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZIETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA



	●	▼		●	▼	Garrak	▼		Nitrogenoa
	Ezkontidea falta			Bokal bikoitza		Galdatan			
	▶			▼		▼			▼
	Itsas hegaztia Baldintzetan	▶							Metal preziatua
	▶			Uztai	▶				▼
				Garrasi					
●	▼		Har ezazu	▶	▼			Röntgen	▶
Gerrarik ez		Garestia	Bokala					●	
▶		▼	▼	Idi, hitz elkar.	▶		Erbioa	▶	▼
				Bokala			Hitz motel		
Jainko egyptiarra Baztanen, zaldi	▶		Lapurdiko herria Erdi, hitz elkar.	▶	▼		▼		
▶			▼	Uranioa	▶	Eskaini	▶		
				Deus		Metalen erakargarri			
●	▶			▼	Arnas ezak hil	▶	▼		Pluralean, denbora libre
●					Arbaso				
▶				▼					▼
Eta	▶		Perpau	▶					
Suari dario			Axaleko						
▶		Fruitu mota	▶	▼			Artsenikoa	▶	
		Goratu					Galde-tzailea		
●	Iridioa	▶	▼		Boroa	▶	▼	Iodoa	▶
	Rubidioa				Atzizki ttikigarria		Musika nota	Gure autoetan	
▶	▼			▼		▼		▼	
Txartel	▶				Moduak	▶			

● Nafarroako Bertsolari Txapelketan txapela eraman duten zenbait bertsolariren deiturak

ENBIDO



OKANE

Haragi, janari-izoztu,
enbutido, yogurt,
urdai-azpiko eta
bertzelakoetan...
sekulako aukera prezio
eta kalitatean
Zatoz eta proba ezazu!

Beran, Harategi-Urdaitegi berria

Kanttonberri 4, Tfnoa: (948) 63 00 18 - BERA

Lesakako Iturria anaiak

**ALMACENES
ETXANIZ, S.A.**



**Irunen, zure bainurako behar dituzun osagarri guziak:
griferiak, manparak, mobleak, gres eta zeramikak**

Juan Arana, 3 - Tfnoa: (943) 61 17 67

IRUN